

Donostia, 2018ko abenduaren 19a

## **165/18 PRENTSA OHARRA**

### **DBUSEN ZERBITZUAK ABENDUAREN 24AN ETA 25EAN**

Gabon Gaua eta Eguberri Eguna direla eta, Dbus-en autobusen ordutegietan ondorengo aldaketak egingo dira:

➤ **Abenduaren 24a, astelehena: Gabon Gaua**

Igandean, abenduaren 24an, Gabon Gaua dela eta, Dbus-en linea guztiek 20:00ak eta 20:30ak artean amaituko dituzte zerbitzuak. Aurten, nobedade gisa, **Gabon Gauean Gautxori zerbitzuak** egongo dira 00:30etik 6:00etara gutxi gorabehera (kontsultatu ordutegien informazio guztia atxikita doan dokumentuan).

Mugikortasun eta Garraioko zinegotzi Pilar Aranak azaldu duenez, “aurten ahalegin bat egin da Gabon Gauean gautxori zerbitzuak eskaintzeko eta erabiltzaileek erosoago eta seguruago egin ahal ditzaten etxerako joan-etorriak. Gabon Zaharrean zerbitzu hau jada finkatuta dago, eta uste dugu Gabon Gauean ere oso zerbitzu preziatua izango dela”.

➤ **Abenduaren 25a, asteartea: Eguberri Eguna**

Astelehenean, abenduaren 25ean, Eguberri Eguna dela eta, zerbitzuen ordutegietan aldaketak egingo dira. Kontsultatu ordutegien informazio guztia atxikita doan dokumentuan.

### **OLENTZEROREN ETORRERA HIRIRA**

Igandean, abenduaren 23an, eta astelehenean, abenduaren 24an, Dbus-en zenbait lineek geltoki aldaketak egingo dituzte Olentzeroren etorrera dela eta.

### **OLENTZEROREN ETORRERA AUZOETAN**

#### **Ostirala, abenduaren 21a - Trintxerpe:**

➤ **38. TRINTXERPE-ALTZA-MOLINAO 11:00etatik 12:30era:**

Euskadi Etorbidearen itxiera dela eta, Euskadi Etorbidea 5 eta Euskadi Etorbidea-Azoka geltokiak **lekualdatuko dira**: Euskadi Etorbidea Portualdea bidegurutzean.

#### **Igandea, abenduaren 23a - Antiquo:**

➤ **5. BENTA-BERRI LINEA, 19:00etatik 21:30era**

Matia kalearen itxiera dela eta, Matia, Benta Berri, R.M. Azkue, R.M. Azkue 32, Zarautz Hiribidea 90 eta Zarautz Hiribidea 122 **beste geltoki hauetara lekualdatuko dira**: Zumalakarregi 10, Anbulatorioa, Irakasle Eskola, Unibertsitatea, Tolosa Hiribidea 112 eta 138.

**Astelehena, abenduaren 24a - Antiquo:**

- **5. BENTA-BERRI linea 11:00etatik 13:30era:**  
Matia kalearen itxiera dela eta, Matia, Benta Berri, R.M. Azkue, R.M. Azkue 32, Zarautz Hiribidea 90 eta Zarautz Hiribidea 122 **beste geltoki hauetara lekualdatuko dira:** Zumalakarregi 10, Anbulatorioa, Irakasle Eskola, Unibertsitatea, Tolosa Hiribidea 112 eta 138.

**Astelehena, abenduaren 24a - Bidebieta:**

- **14. BIDEBIETA linea 17:15etik 19:15era:**  
**Bukaerako geldialdia egingo da Juan XXIII geltokian.** Honako geltoki hauek zerbitzurik gabe geratuko dira: Julio Urkijo kaleko bi geltokiak eta Serapio Mujka. Juan XXIII-ra lekualdatuko dira.

**OLENTZEROREN ETORRERA ERDIALDEAN**

Astelehenean, **abenduaren 24a, 17:45etik 19:30era** gutxi gorabehera:

- **5.BENTA BERRI eta 25.B.BERRI-AÑORGA**

Artzain Ona, Okendo eta Boulevardeko geltokiak Londres Hotelera lekualdatuko dira

- **16.IGELDO eta 18.SEMINARIOA**

Artzain Ona, Okendo eta Gipuzkoa Plazako geltokiak Zubieta 14-ra lekualdatuko dira.

- **19. AIETE-BERA BERA**

Artzain Ona, Okendo eta Gipuzkoa Plazako geltokiak Urbieta 6-ra lekualdatuko dira.

- **21.MUTUALITATEAK-ANOETA, 26.AMARA-MARTUTENE eta 28.AMARA-OSPITALEAK**

San Martin 25, Okendo eta Boulevardeko geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira, Urbieta 6-ra edo 12-ra lekualdatuko dira, bakoitzari dagokion ohiko geltokira.

- **8.GROS-INTXAURRONDO, 9.EGIA-INTX, 29.HEGO INTX-SUR eta 42.ALDAPA-EGIA**

Linea hauek Legazpi kalean egingo dute amaiera geltokia. Hemendik Idiakez kaletik joango dira, Askatasunaren Hiribidea 7-an geltokia eginez (14 linearen geltokia). Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea 15 geltokiak bertan behera geratuko dira.

- **13.ALTZA**

Ohiko geltokia egingo du Boulevardean. Ondoren Legazpi eta Idiakez kaletik igaroko da, Askatasunaren Hiribidea 7-an geltokia eginez.

- **31.INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA**

Aiete alderantz, Boulevardeko geltokia Gipuzkoa Plazara lekualdatuko da (14 linearen geltokia). Boulevard eta Urbieta 6 geltokiak bertan behera geratuko dira.

➤ **33.LARRATXO-INTX-ANTIGUO-BERIO, 40-GROS-ANTIGUO-IGARA**

Askatasunaren Hiribidea 18-ko geltokia Londres Hotelera lekualdatuko da.

➤ **37.RODIL-ZORROAGA**

Easo 9 eta Askatasunaren Hiribidea 21 Askatasunaren Hiribidea 3-ra lekualdatuko dira.

➤ **36.SAN ROKE-ALDAKONEA**

- San Roke alderantz: Askatasunaren Hiribidea 20 eta Urbieta 6 geltokiak Gipuzkoa plazara (14 linearen geltokira) eta Urbieta 38 lekualdatuko dira.

- Aldakonea alderantz: Easo 9 eta Askatasunaren Hiribidea 19 geltokiak Askatasunaren Hiribidea 3-ra lekualdatuko dira.

➤ **45.ESTACIONES RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE**

Askatasunaren Hiribidea 18-ko geltokia Londres Hotelera lekualdatuko da.

➤ **46.MORLANS**

Bizkaia Pasealekua, Gernikako Arbola, M<sup>a</sup> Cristina Zubia eta Askatasunaren Hiribidea 20 geltokiak Urbieta 6-ra eramango dira.

Informazio gehiago [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus) webgunean eta 943 000 200 telefonoan.

